

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lucio Lizartza Esnaola

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Martintxone (edo "Gabinoene") baserrian jaioa. Aita, [Gabino](#), palankari ezaguna zen eta 1924ko Parisko olinpiar jokoetan parte hartu zuen disko jaurtiketan. Baina gazterik hil zitzaion aita, berak sei urte zituela, eta amak gogor lan egin behar izan zuen bost seme-alaba aurrera ateratzeko. Luciori ere mutikotatik baserririk baserri lanean ibiltzea tokatu zitzaion. Paper-lantegiek indarra hartu zuten garaian, Berrobiko Uranga lantegia eraikitzeko lanetan lan egin zuen eta gero paper-fabrikan bertan lan egin zuen (40 urtez). Berastegiko udalean zinegotzi izana da. Sei seme-alabaren aita da.

Zintak

BRS-009

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-16
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Diaz, Josu

BRS-010

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-16
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Bizimodu gogorra

- **Erref:** BRS-009/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bizimodu zaila izan zuen txikitan. Aita hil, eta ama gazte gelditu zen alargun 5 umerekin. Ama nola moldatu zen zorrak ordaintzeko. Non jaio zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ba txikitan oso, oso bizimodu txarra gutzat. Aitte hil zitzakun berrogeita beatzi urtekin, ama geratu zan bost semeekin, zaharrenak hamar urte ta bigarrena bi gutxi [...], binaka-binaka urte, txikinak hiru hillabete. Gero zaharrenak etxetiken noabaittea; etxe txikie gendun, hiru behi bakararak, ama bakarrik joaten zan ganauentzako belarra ekartzea ta ahal zun tokira gaixoa. Dirurik ez, eostunekin hiru behi [...] baldin bazittun, bi belaze erosi zittuen aittek eta amak, ta aipatu gabe arten dena, ta mixeri baten mixeri baten bizitu giñan. Geo gerra etorri zan.

- Eta ze etxetan jaiotakoa zara?

- Ni Martintxonen.

- Martintxonen.

- Martintxonen, bai. Gabino esaten giñun, zeatikan aitta zanak Gabino Lizartza zan, Gabinoene edo Martintxone, total. Hala da, bai.

2. Gerrako lehenengo eguna

- **Erref:** BRS-009/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasi zeneko eguna kontatzen du. Gorriak iritsi, eta denak etxean ezkutatu ziren. Aita etxetik irten zen orduan. Aitaren gerrako oroitzapenak

Transkripzioa

- Gaiñekuan gerra denboa etorri zan. Gerra hasi zanen... aittekin ta amakin [Entzergin] giñen belarren, ta gorrik eo esaten zuen etorri ziela, hor Naparratikan sartu zan tropa bat, tiroka hasi zien ta gurdik eta denak utzi, ta etxea etorri giñen. Etxea etorri giñen, ohi azpin eo ez dakit nonbaitten gorde, gorde giñen, gure etxea dena jendez bete zan, karretera nola hartzen zan hortik, eta gaua pasa zuen, ordun alde ein zuen, goatzen naiz gure aitta zana kanpoa atera zan ordun, etxetik alde ein zun. Zeatik ez dakit, bakizu...

- Horrek soldaduak etorri zianien?

- Bai, bai, etxetik alde ein zun. Sei urte nittun nik, hoi gooatzen naiz e? Txikitako gauzek gooatzen die gauzak. Sei urte bittarten soroan balenka tiratzen'e ikusi nun nik aitte, ta hoi gogoatzen zidan.

3. Gerra garaian janaria lortzeko egindakoak

- **Erref:** BRS-009/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:04:02

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean, ez zeukaten ogirik jateko ere. Olio eta azukre gutxi zuten. Etxe batean eta bestean ibiltzen ziren lanean janariaren truke.</p>

Transkripzioa

- Geo gerra etorri zanen, jatekoik ez, ogiik ez, olioik ez asko, azukrea're oso gutxi, mixeri baten. Ta behin zortzi bat urte ezkeo, etxe batea bestea, lana asko ez, baiño ordun dena laborek ibiltzen zien soro guztik, dena laborea zan hau, dena dena dena dena. Ta itzulera esaten giñun behien aurren jarri eun guztin behien aurren bueltaka.
- Soroa lantzen?
- Soroa lantzen, ta ia landu o pixko itten zanen, hurruna zakarra bildu ta haik erre ta edozein gauza eitten gendun guk, edozein, oso gaztetan.
- Eta hori beste etxe batzutara joaten ziñeten?
- Bai, bai, bai, bai.
- Janari truke, edo?
- Ba aber, hoixe, besterik ezer ez, jaten gendun ta batea ta bestea ibilli, eskolaa behin eo behin.

4. Eskolako giroa

- **Erref:** BRS-009/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolara askotan joaten zen taloa lurreko suan eginda. Lurreko sua nolakoa zen azaltzen du. Eskolara joaten zirenean, Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Klasean ikasle gehiegi zeuden. Gerraostean hasi zen eskolan. Fundamentu gutxiarekin joan zen eskolara, etxeko arazoengatik.</p>

Transkripzioa

- Ni askotan joan nintzen eskolaa taloa neonekin, zortzi-bedeatzi urtetako kontua esaten dizut e? Taloa neonekin, erre, lurreko sue, lurreko sue ez zendun ikusi egingo zuk segur asko, lurreko su baten, hantxe hautsetan pixko bat zikindu ta...
- Lurrean sua einda?
- Bai, sue zan bere tximinikin ta bere...
- Baiño hori etxean.
- Etxen.
- Zuek sukaldean zeukazuen sua lurrean?
- Bai, lurrekoa bai, ta han taloak erre puska emateko beste jan. Esnea izaten gendun baizik hoixe, esnea bai, ta eskolaa eo ahal zan tokia, bueno... Ba komeria baten ibiltzen [...] gu txikitari. Eskola joaten giñenean ere, orduko eskola zan, eskolaa joan ta lehendabiziko 'Cara al Sol'

kantatzen. Ta orduko zeak, eta igual berrogeita hamar ume igual o berrogei o, dena batera eskola...

- Neska ta mutil denak batera?
- Neska-mutil ez gendun eskolik. Ikasi gendun pixke, bueno...
- Klaro, ze zu eskolan hasiko ziñan gerraostean, ezta?
- Bai ba, bai ba, bai ba. Sei urte baiño lehen o iñor ez zan joaten gaiñea, geo, geo hasi zan. Ta geo aitte hil eta geratu giñan iñorre gabe eta ezerre gabe, fulamenturik gabe, ta hortxe...
- Eskolara gutxi.
- Gu eskolaa oso gutxi, eskolaa gutxi, esaten diet oain, hodi esaten diet nik semei ta "zuek, zuek bezela eskolaa izan banu nik modua joateko abogadu izango ninduen". Matematikatan dana oso aisa aitzen nintzen, bai, bai.

5. Umetan egindako lanak

- **Erref:** BRS-009/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>12 urterekin berak egiten zuen ogia baserri batean. Beste baserri batean, trukean alpargata pare bat ematen zioten. Behi asko zeuden han, eta bi morroi gehiago, eta gerora neskameak. Lan asko egin zuen han.</p>

Transkripzioa

- Urtek ez zazkit goatzen, baiño beste etxe batera joan, ta ez dakit hamabi urte edo zenbat izango nittun nik, ogie nik itten nun hara joanda: etxen erre, han labea bazuen, ogie etxen neronek ogie egin, erre ta jateko ta... Holako komeria asko buff! Gero hemen beste baserri batera ya hoi pixko bat geroxeo, baiño gazteik, oso gazteik. Hor alpargata pare bat ematen baldin bazizuen noizbaiten hausten zirenen janzteko, besteik gabe, baiño etxe hortan beatzi behi zien e! Beatzi behi ta zezena ezta? Ta beste... Hor morroiak zien ordun, bi morroi euki zittuen bizkaitarrak... Alfonso ta Boni ziela uste det, ta ni haiekin baten eoundu nintzen, ta haik alde in zuen, geo ni bakarrik, ta neskame bat hartu zuen, ez dakit ordurako hor zan eo ta zenbat lan eitten gendun neska, oaindik bizi da neska, Serafina. Neska gaixo horrek eta biok hamaika lan egin gendun...

6. Txikitako gaiztakeriak

- **Erref:** BRS-009/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Nagusiak tinbre bidez jotzen zien morroiei. Luziok tinbrea puskatu zuen ez gehiago horrela deitzeko. Eta gero komeriak.

Transkripzioa

- Baiño gaixtoa're, pixkot gaixtotiken'e banun nik.
- A bai?
- Bai, han hoi Lizarra da Lizarra baserrie, ta han morroiai nausik tinbrea jotzen zien jekitzeko habitaziora, bai, habitaziora bai; ta ni morroiak alde inda geratu nintzenen, pentsatu nun, nei'e tinbrea jotzen, ta pentsatu nun "tinbrea? Ez zidak jo ber nei gehio honek tinbre honek, eta zerbait ein behar diot", baiño tonto hutse. Jats nun atek muelle zun atzetiken, jo nun makillakin, ta jata dena txikitu tinbrea, ta nagusin ta aurren, ate aurren potekan tinbrea joan zan. Han ikusi nittun komerik geo...
- Geo ze, errita?
- Buff, buff, bueno, hola...

7. Donostian arotz-lanetan

- **Erref:** BRS-009/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Lan desberdin asko egin zituen, eta gerora Donostiara joan zen lanera, arotz. Baina bronkioetako arazoa zuenez, utzi egin behar izan zuen lan hura.</p>

Transkripzioa

- Geo holaxe pixkana-pixkana hasi ginen geo lantokikin, baten igeltsero batzuei laguntzen, beste batzutan zeozer hola. Beno, Donostiara're joan nitzen igeltsero, anaia zaharra igeltsero joan zan Donostiaa ta ni ere joan nintzen Donosti... Rekondo, Casa Rekondo aitzea izango dezu, Igeldo iyoeran dago, restaurante bat dago. Han hamar behi zien eo hamaika-eo dana dala, ta behiek-eta jetzi ta bokadillo hartu ta lanea. Amaran lehendabiziko etxea karrille bat zan Amaran aurren, Hernani edo ez dakit nora joaten zen trena hue. Baina Amaran lehendabiziko etxen obran arittu giñen gu. Bai, han obran arittu ginen, baino gaizki pasatzen nun oso, ta medikutan ta medikuk esan zianen: "Zu [...] oso lan gogorra daukezu. Ta igel ofizio hortan beti gaizki ibilliko zera".
- Nondik ibiltzen ziñen gaizki?
- Bronkiok, bronkiotatikan gaizki ibiltzen nintzen ta alde in ta etxera etorri [nittuen].

8. Urangarenean, eraikuntza lanetan; paper-lantegien mugimendua

- **Erref:** BRS-009/010
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Inguruetan gehienak maiorazgoak ziren eta paper-fabrikara lanera joaten zirenek fama txarra zuten. Garai hartan ari ziren pizten paper-lantegiak eta Uranga lantegiaren eraikuntzan parte hartu zuen. Irabazten zuen soldata.</p>
<p>

Transkripzioa

- Bueno, etxera etorri nintzen. Ordun papelerak, batzuk ziren papeleran lan eitten zuenak. Ta nonbaiten lanean hasi in behar. Ta papelerak´e ordun hasi ziren pixkat piztutzen. Hemen jendeek papelera, papeleran lan eitten zuenengatikan gaizki hitz egiten zan. Papelera gizaixoak eta noski papelera ahulek-eta.

- Fama txarra zeukan.

- Fama, bai hemen dena nola ziren maiorazgok, “mayorazgos”, hoi ta beste mutil zaharren bat izaten zuten denak laneako maiorazgoak ziren jauntxos, ezta?

- Ta lanera joaten zirenak.

- Ta lanera joaten giñen ta hola, ta ordun Uranganen obra bat atera zan, aber alde batera lana emango zuela, bide bat zan, hau baino zabal, hiru-lau metro hola, altura eman giñun “dos cincuenta” hola. Makina bat jartzeko zuloa in ber zan, zulo handie e, “dos cincuenta” behera ta lau metro zabal ta ondoan erreka zegon, erreka hue pasa ta bestalden beste zuloa zegon. Ta in behar izaten gendun: Karrille jarri errekan zulo batetiken bestera pasatzeko, ta bagoia oain dunperra diren bezela, ordun bagoia bat gendun, ta bagoi hoi bete lurrez, ta hamar pezta gendun, baiño betetzeko orain bezela kutxararik-eta ez zan. Betetzen gendun, zistoa bete, eskaillerakin eskailleratan gora iyo ta bagoia, bagoia betea. Hamar pezta. Hamar pezta ordun, ta joan giñen Berastegiko lau ta bi Berrobiko, sei launek alde batera hartu gendun zulo hue egiteko. Ta zulo hue ez dakit zenbat denboram ingo gendun, baiño in gendun, esan dizutena zabalen horrenbeste altura ere bai. Ta igual zenbat metro izango huan harek: berroita hamar metro luze? Sekulako lana egin gendun han. Hola, geo behintzat hasi giñen Uranganen lanen, obran.

Ta ni hasi nintzenen, hoi lanoi bukatzen gendunen, ateratzen gendun jornala dezentea: hamahiru duro, hamabi, hamar. Segun zenbat bagoi betetzen giñun, sei lagun en arten partitu ta han. [Ordun kontua] hasi giñen gero enpresan, zeran barrun, zuloa ein gendun hontan, altxa in ber zan zea fabrike, makinak jartzeko ta orduko hiru pezta ta erdi hasi nintzen ni lanean han, hiru pezta ta erdi, bai...

- Hori zan Urangan, hori zan konstrukzioan-edo, ez?

- Bai konstrukzioan.

- Eta ze ibili ziñaten iten paper fabrika?

- Bai baina gero ia bueltan dator hor barrura sartu giñen gero. Hoi obra egin gendun hoi, ez dakit zenbat arten. Hoi die ba “el año cincuenta”ko kontuk eo ez dakit, Hola ta behintzat geo lau pezta noizbait´e , lau pezta ta erdi...

9. Bazkaria lanean

- **Erref:** BRS-009/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Lanean bertan, oso bazkari onak ematen zizkieten. Zer menu izaten zuten azaltzen du. Lankide bat bazkari batean haserretu zenekoa kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Bertan bazkaltzen gendun, han fabriken bertan, baiña bazkarie izugarri ona ematen ziun. Zopa, zopa ez, ezerrez, salda, ta babarruna, ta arraultz bat tomate pixka batekin. Hoi izaten zan gure bazkarie, ta gogoratzen naiz batek joan giñen bazkaltzera ta esan zun: "Hau zer da zopa o ure?" esan zun. Tenedorekin hasi zan zopa jaten, zopa ez da tenedorekin jaten normalen. Halako zan bea ere ta zopa jaten hasi zen tenedorakin ta ostias. Da! leihotik behera, platerak eta kristo guztik tiratzen zittuen beste harek, malaletxea zan!

10. Fabriketan lanean, eta motorra

- **Erref:** BRS-009/012
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Fabrika askotan ibili zen lanean. Bizikletaz joaten ziren lanera. Gero motorra erosi zuen. Lan eta lan ibili zen edozer gauzatan.</p>

Transkripzioa

- Ba obran gero denbon bastanten ibili giñen. Gero barrun sartu giñen ta barrun fabrika guztin. Ni behintzat fabrika guzti jira nun. Bobinadoran hasi nintzen, kortadorak, bi ba ziren, kortadorak
- Non zan hori?
- Uranganen, Uranga, Berrobi
- Hemen bertan, ezta?
- Berrobin
- Ah Berrobi
- Berrobia, bizikletan, bizikletan joaten giñen. Bizikletan joan ta hantxe. Bizikletan, esaten gendun: "moto txar bat ez ote degu izango lanera etortzeko", baakizu... Benga motoan edo bizikletan ta horregatik bizikleta erosi gendun. Gero motoa erosi nun. Ordun motoak diru balio zun, hoge ta bi mille pezta pagatuta, hogeita bi mille pezta ordun, "a ver". Hogeita bi

mille pezta sobratu in ber zuen ta bintzat Uranganen lanen. Ta lan ta lan ta lan hortxe ta barrun sartu gñnen geo fabrika guztik makina guztitan, Mekaniko [hua] re aritu nintzen, beno edozein gauz.

- Denetik probatu zendun.
- Dena probatu in nun.

11. Neskatan

- **Erref:** BRS-009/013
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:29. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Emaztearekin hasi zenekoa kontatzen du. Ze trikimailu erabiltzen zituzten gustuko neska etxera laguntzeko. Dantza soltean ibili behar izaten zuten. Debekatuta zegoen dantza lotua.</p>

Transkripzioa

- Honek oain andrea [deten] honek han egiten zun lana, beno lehen ezagutzen nun, baiño honekin hasi nintzen pixkat zerbaiten, ez dakit nik zergatik edo nola hasi nintzen arrastorik ez. Ordun hemen soiñu izaten genun igandero inbalido bat etortzen zan, soiñua harek jotzen zun, ta dantzan ta suelton, baiño pixkat ibili ta hola ta baten batek laguntzera jun nahi baldin bazun, soiñu geratzeko igual esaten giñun zeai: “Bueno, ni neska horrengana joaten naizenen, zuk soiñua geratu ta hori geratzen denen ni berarekin joango naiz” ta hola.

- Hitz eginda ordun.

- Soiñujolekin hitz eginda. Soiñujoleakin hitz eginda. Nik ez nun askotan egin ta, baiño hola.

- Eta neri atzo esan zidaten, baiñan neska bakoitzeko igual hiru mutil egoten zirala zain.

- Bai, zu neskakin geratzen ziñen, baiño han bazterren beste bi hiru igual zen ta zu neska helduta ez baziñen, habitzen “raaa” harek igual heltzen zion ta aurrexeago joan ta apeiza-ta han zeuden zai aber. Beno.

-Konpetentzia gogorra.

- Buu txarra, txarra.

- Ta dantza sueltoan.

- Suelto, suelto.

- Agarrauan ez?

- Ez zen uzten gaiñea agarrau eiten, suelto.

12. Etxea egiteko komeriak

- **Erref:** BRS-009/014
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Neskarekin hasitakoan, etxerik ez zuten. Zer egin zuten etxea egiteko kontatzen du: anaiarekin batera diru-laguntza eskatu, eta etxea egin zuten familiaren lurretan; Donostiako arkitektoa ekarri zuten, eta beraiek atera zituzten zimenduak. Jendea esamesaka ibili zen etxea egin bitartean. Kontratista Leitzan topatu zuten.</p>

Transkripzioa

- Geo baakizu neskakin hasi nintzen, ta etxerik ez gendun. Hau gue terrenoa zan, baserrikoa, baiño baserri nola zan maiorazkoentzako dena. Gu ezer ez gendun. Ta terreno puska hau hartu gendun etxea egiteko. Bi anaiak, gazteenak eta nik. Etxea eitten hasi ginen, bueno etxea itteko idean hasi giñen ta hor beste etxe bat bazegoan, saltzeko atera zun ta ehun ta hamar mille pezta eskatu zizkigun ta esan [du] pisu txar hau bakarra ta ehun ta hamar mille pezta ta bi anaiak hitz egin [genun] ta etxe bat zeatik ez degu itten, Berastegin etxek itten ez gendun guk behin´e ikusi, inor´e. Lehendabizikoa herrín, gue gogoan nintzana hau da “el año sesenta y dos” ein gendun. Hala hasi giñen, handik eta hemendik eta nolabait´e ta paper baten leitu nun nik “que había subvenciones”.

- Etxeak itteko.

- Etxeak itteko ta paperak ein giñun, ta kobratu gendun, kobratu ere ein gendun: “Sesenta mil pesetas”, “a treinta cada piso”. Ta ordun etxea eitten hasi giñenen, jende guztia hitz eitten, “horii dirua zeñek emango zien etxia itteko?”. Familiarrak-eta okerrenak, ta hola, ta bintzat hasi giñen gero zimentuk-eta ateratzen, arkitekto bat Donostiakoa ekarri gendun. Ez dakit Donostiara zertara joan giñen, bintzat Donostiako arkitekto bat ekarri gendun. Planoak in zizkigun ta bi anaiak hementxe planoak jarri bazterren, neurtu ta bueno hementxe in beharko diagu hau aurreaxego hau horraexo, honaxeo, haraxeo... Zimentuk ateratzen atxurrakin ta palakin, ez zan kutxaraik, hemen bintzat, ta zimentuk ateratzen-ta hasi giñen ta hemen taberna zegon bertan amistade haundia nuen nik, bueno amistade denakin, baiño Benardo zan horko taberneroa ta etorri zan, ta beste batekin etorri zan zea bestea don Martiñeneko Pedro, hoi herriko hoi´e ayuntamentun zerbait e bazun hor, Kajero edo zerbait, bik etorri zien ta esan zigun: “Ze hasi zeate?”. “Ba etxe koskor bat eingo ote degun”. Ta hola ta esan zidan Benardo horrek esan zidan: “Tabernan zeuen ta jende guztia hitz itten ari dek zuengatik ta aber ze eitera zoazten, konejera edo zulo zikin batzuk itten ari zaretela-ta” handik eta hemendik. Eta esan nion: “Bueno, nik ez dakit zuloak edo ze izango diren, zuloa ahal dana egiten ari gara, baiño neurrik hok dauzke etxek”.

- Zimentuak.

- Hori ba! “Neurrik ta arkitektuk ein dittu, geure kasan ez gera ari” esan nion. Hala hartu zittun datuk ta joan zan etxera, ta handik bealaxe etorri zan ta esan zidan: “Segi, ez iñori kasurik in, gure etxen neurrik zeuzkek, honek dittu “nueve y medio por once y medio””, ia ia ehun metro, etxea, nahiko etxea. “Segi!”, esan zidan “ateako dek etxea, bai” ta hola. [...] Dirua zeinek emango zigun ta iñork ez zigun laguntzen, baiño hitz egiteko nahikoak ziren. Geo kontratistan bat edo baten bat billatu ein ber, kontratista bat billatu gendun, hemen ari zana lanean, etxe bat erre ein zan ta anai ziren kontratista hoiek, Leitzekok, ta joan nintzen ta hitz in gendun, ba tratu egin gendun ta etxea ittea.

13. Etxea egiten hasi eta hura ordaintzeko lanak

- **Erref:** BRS-009/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Arotzak

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Bost urte egon zen nobiotan, etxea egin arte zain egon baitziren. Diru-laguntzak asko lagundu zien. Lanean suertea eduki zuen, igandetan aste osoko lana egiten uzten baitzioten. Gaztetan ez zuten aprobetxatu denbora elkarrekin egoteko.</p>

Transkripzioa

- Ezkontzeko nahiko denbora pasa [...]. Bost urte nobiotan, gehiegi, gehiegi ta guzti zeatikan. Etxerik gabe geunden ta etxea ein behar ta nahiko komerikin. Ta etxie itten hasi giñenen, nik kartilan neuzken “ochenta mil pesetas”, ez zittun askok eukiko hori igual e, “ochenta mil pesetas” ordun asko zien. Diru asko zan, diru asko zan. Hala teillatue eman zien, bintzat zor handiik gabe ordun genbiltzen komeritan ta subentzioa kobratu gendun, “sesenta mil pesetas”, jo! Harekin erreunitu ginun denak, anai igeltseroa ta hue ekarrarazi gendun ta harek bazeuzkan beste bi lagun asteasuarra barrungo lanak eitteko, haiek ekarri giñun ta hementxe lanen. Nik bi hilleteko porroga atera nun fabrikatiken, ez ziren eman nahi izandu, baiño baten bat hartu beharra neuken ta bintzat eman zidaten, baiño kondizio batzukin eman zidaten porroga: igandero lanera joatekotan. Baiño ikaragarri gustora. Asten irabazten nuna igandean bakarrik irabazten nun, ikaragarri ondo tokatu, ondo tokatu zitzaten. Ta andreakin nenbillen ta esaten nun, mekaniko lana itten nun ordun, ta esaten nun: “Bueno, etorriko naiz lauak aldera edo bostak aldera”. Motoa nun ordun, lauak bostak aldera etorriko naiz, lauak, bostak eta seiak jo ta makinan azpin igual. Zikin-zikin inda grasaz beteta, bueno desastre, desastre. Gure gaztetasune izandu zan parragarria.

14. Dirua izandakoan erosten

- **Erref:** BRS-009/016
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Etxean bizitzen jarri zirenerako, dena ordainduta zeukan. Dirua izan arte, ez zuten erosten. Lan asko egiten zuten orduan. Irabazitako dirua amari ematen zion.</p>

Transkripzioa

- Azkenenan etxea pagau ahal izateko ba hori ez, lan ta lan
 - Baiño etxea, lan ta lan ta lan ta lan... Baina egia esatezkerok, bizitzen jartzerako pezta baten zorrik gabe, etxea pagatuta hasi giñen gu. Oain nik askotan esaten det gauz bat´e: radio bat...aurrena dirua sobratzen gendun, gero ekarri.
 - Gero ekarri baina ez alderantziz
 - Telebisioa ez dakit noiz izandu gendun ta hola, baiño pagatuta ekarri.
 - Bai, bai, etxea ere berdin, ez?
 - Ni...Bai, bai, bai. Mueblek usatu jarri,
 - Zorrik gabe.

- Usatu jarri giñun ta ahal gendun bezela ta puf! Andrek aiuntamentu ta eskola garbittu ta kriston lana, nik hamabi ordu baiño gutxio ez dakit noiz ingo nittun, lana ta lana ta lana... Orduraarte gaiñea, soldaduska joan arte amai, diru guztik amari, nik bakarra itten zun ia etxen lana. Bat etxean zegoan, baiño baakizu baserriko diru berrie, diru berrie ta gue ama beti diru eske, diru eske, diru eske, ta amai dirue.

- Zuk irabazitakoa amari ematen zenion.

- Amari eman, amari ematen nion. Ta dirua sobratzeko asunto txarra besteei emanda ta, baino, osasune ta...

15. Bizitzan zehar egindako lanak

- **Erref:** BRS-009/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>43 urtean ibili zen lanean papeleran. Bizimodu txarra, baina osasun ona izan du. Oraingo bizimoduarekiko zeinen desberdina zen hura.</p>

Transkripzioa

- Berrogei ta hiru urte papeleran atera gabe. [...beharra dago] , berrogei ta hiru urte, hoi barrun atera gabe ta obran egin nittunak. Bai, ta fabrikan berriz jira, buf! Bueno dena hola, bizimodue, bizimodue txarra eman degu, baiño osasun ona ta oain hirurogeita hamazapi urte ta nik esaten, askotan, oain esaten det: "Zea aitona, yogur bat!". "Kadukatua dao", "kadukatue?", bueno bueno.

- Guk harrapatu izan bagendu...

- Harrapatu izan bagendu kadukatue zegola ta Jexus Maria. Aurretiken lan asko egin gendun [...], pixkat basoan´e bai, edozein gauzetan, lan guztitan...

16. Garoak ebakitzen

- **Erref:** BRS-009/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:24:02. **Bukatu:** 00:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobeitxamendua

Laburpena:

<p>Baserriko lan egin zituen fabrika hasi aurretik kontaktzen du. Garoak nola ebakitzen zituzten kontaktzen du.</p>

Transkripzioa

- Ordun´e baserrin´e lan asko izaten zan, laie, laie joten zanen, laye lurre jiratzea, sei gizonetzko jarri ta zotala jira-jira-jira ta gero zuloa zaborra bota,

zaborra botatzen mutil koskorra, ni hantxe zaborra bota. Garoa Berastegin, garoa, denak kalekuk zien, garoa ebakitzen zan ta fabriken hoi fabriken hasi baiño lehenao gaiña garoa ebakitzera.

Goizen jun, pattar pixka batekin edan ta illuntzeko hola garolekura sega bizkarrean hartuta, ta eun guztin mendin lanen, holako...

- Hemen baserriak danak bueno kale inguruan ez eta garo sailak mendian egongo ziran.

- Bai, hori ba, ta gu libre xamar geundenean esaten zin: "Hi, zera, etorri al hitzake garoa?" ta bueno batera joan bestera joan ta bestera joan ta bueno, beti hola.

17. Belarra ebakitzen

- **Erref:** BRS-009/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:57. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Belarra ebakitzera joaten ziren lanera, eta nola egiten zuten lan kontatzen du. Lan handia zen, baina gustura ibiltzen ziren</p>

Transkripzioa

- Belarrera joaten giñenen, ordun ´e hiru bi giñun, bale baiño joaten giñen bi gurdi hartu, auzo, aita zana hil ezkerro, alkarri erantzita eaman hara, gurdie kargatzeko ez giñen gauze, oso ume giñen arten oso gaztek, belarra ihartzen ze[...], ebakitzeko, bik ebakitzen zittuen gure belarrak, bik hillek daude: Zapate[...] Manuel eta Graxi. Ta hoik ebaki ta gerok martxa, jiraz ta bilduz ta eitten gendun lana, gero gurdie kargatu behar ta gurdi kargatutakoan izaten giñun bi gizon gizajoak, berak ´e lana izaten zun, gurdi kargatzera igual ez segittun, baiño joaten zitzaizkigun Arttoanekoa, ez dakit ze izen zun ta Ugaldeko, hoi bik matematikos. Gure belarra hoik kargatzen zittuen... Hor aldapa dago SanAnton esaten dioten hortara, horrera ekarri, gurdi bat hor utzi ta jira ta bestea eske joan. Bestea aurrera ekarri, alkarri lotu nolabait ´e ta bi gurdi etxera ekarri belarrakin kargatuta baten. Honera etxera etorri, gure etxetzarrok, toki baserri askotan mandioa zittun, baiño hor nola ez zegon. Sardeka, bigarrenko soilarura hirugarrena, benga iyotzen, belarra iyotzen, bueno bueno bueno, "desde luego", dena gogatu ezkerro, desastre, desastre baiño gusto[...]

- Lan handia ta, ez? Dirurik ez

- Baiño halare gustora ibiltzen giñen, jaie edo jaiatsaldero etortzen baldin bazan, zerbait itteko edo, neskakin buelta bat ittera joateko-eo, "más contento que la leche".

18. Aisialdia eta neska-laguna

- **Erref:** BRS-009/020
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neska beti garaiz eramaten zuen etxera bueltan. Askotan afaltzen zuen neskaren etxean. Igandetako plana hori izaten zen: musika. Gerora, afaltzera joaten ziren. Neskarekin hasi zenez geroztik, ez zen erromeriatara joaten. Garai hartan, ezkondu arte ez zen publikoki erakusten bikotea zenuenik.

Transkripzioa

- Nik egia esan behar bada, bost urte alkarrekin eman giñun, baiño, motoa nun, motoan argia piztuta behin ez nintzen alletu neskan etxera. Beti garaiz. Erretiro ona, erretiro beti ona ta zemat apari egin ote nun nik neskan etxean. Jaiero afaltzen neskan etxera, bai...Hola, bueno... - Lehen holan izaten zan ez, illuntzerako etxera, ez? - Bazien ordun parranda, bai, baziren bai baziren, parrandak egiten zittuenak. Baiño oso ondo. - Bestela igandetako entretenimendua ze izaten zan? - Hoixe. - Hoixe buelta bat eman… - Bizkarren ekartzen gendun, inbalidoa zan soinu jotzailea. Edo astoan gaiñen, astoan gaiñen batzutan zeren eta bizkarren, ta hue asenton utzi ta astoa joaten zan etxera ta hortxe pixka baten ibilli. Gero behin pixka bat koskortuta, pezta bat ikusi gendun garaian ba apari mokadu bat zerbait´e kontsejun-ta, ordun aparria eskatzen zendun […] ta ematen zizuen zopa ta gisadue ta xerra bat, afaria hua izaten zan, bai. - Ordun hori hemen igande arratsaldetan dantza ta gero neskakin hasi ta gero ere dantzara joaten ziñan? - Ez, ya, ez, ez, ez. - Hori ez zan izaten normala, ez? - Ez, hemen esaten gendun askotan. “Holako ezkontzen omen dek!” ta esaten gendun: “Andregaie ba al du?”. Ez zenun ikusten mutil bat neskakin. Asko esatea izango da, baiño Berastegin neskakin egun argiz ateratzen neroni hasi nintzen aurrena. Motoakin hemen behera etorri zenen bide txar bat zan ta horko etxe hortakoa naiz ni, bertan ta etorri neskakin etxera, atzetiken nora ote nijoan zaintzen. - Jendea bijilatzen. - Jendea zaintzen ta mentalidadea zan holakoa, bai, bai.

19. Txikitako gaiztakeriak

- **Erref:** BRS-009/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Apaizei beldur gutxi zien. Inguruko baratzeetan sartzen zen udareak lapurtzera, lapurtze hutsagatik. Berastegin, kanpotik etortzen ziren turistei egindako gaiztakeria kontatzen du. Ez zen geldirik egoten zenetakoa.

Transkripzioa

- Ta gaiñera hori ez, apaizak eta gero ikusi ezkerro ta izango zan pixkat...
- Apaizai ta nik ez nien hainbeste beldurre. Hemen konfiantza, plaza ingurukoa giñen, ta hemengo baratza guztitaa, inguruko baratza guztitaa sartu nintzen ni udarek manejatzer, udarek harrapatzer. Mugan gaiñetiken sartu ta udarek lapurtu. Oain mahaien gaiñen eukitzen dittue denak, baiño ordun ez zan, udare batzuk lapurtuta ta haiek jan ta...
- Gosea pasau zenduen, ez?
- Gosea baiño zer esango dizut nik, bizioa!
- Falta, zerbait falta.
- Zerbait egin behar, hemen beraneante asko izaten zan ordun. Beraneante asko, hemen Fonda Arregin e habitazioak ziren, hemen [...] habitazioak ziren ta etxe partikularretan ta asko ta hola ta. Argirik ez zan hemen ia, farola txar bat-eo bakarren bat edo beste, baiño hemen jugadorek eta ´re etortzen ziren: Ontoria ta Mendiluze ta beste [...] Jugadorek ibiltzen ziren hemen, etortzen ziren. Donostitikan ere jende asko etortzen zan. Familia Amunarriz, berak barkue zuen gaiñea, haien barkun ibilli nintzen ni, haiek famili guzti hemen izaten zien. Ta ni izandu nun hontza harrapatu, hontza bat harrapatu hemen ganban ta afaltzen ari zirela haieri bota, jendei, haik karraxik ta hura eskandalo, holako...
- Zure gustatzen zitzaizun pixkat gaiztakeri batzuk ittea?
- Bai, oain zerbait ittea baldin bazan segitun neregana etortzen ziran: “Eh Luzio!”.
- “Zu izan zera”.
- Hemen [...] Zakue-eo burutik behera hartuta mutil koskorra korrika amonei-ta segitu igual, haik garraxika jarrita
- Bai, bildurtzen?
- Bai. Oain esaten [...] neskak eta esaten dia hor ni baiño zeozer gaztexeago zirenak: “Zuen atarira etortzeko beti bildurrez eoten giñen”, esaten die askok. Bueno, baiño gaizki ez giñun inori egiten.
- Ez, ez, bromak. - Zure entretenimendua hoixe zan ezta?
- Aber, zerbait in berko zendun, zerbait in berko...

20. Beste gaiztakeria bat

- **Erref:** BRS-009/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:32:17. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Beste mutil batekin zihoala, lurrean topatu zuten tresna astun bat zuhaitzean gora igo zuten.</p>

Transkripzioa

- Han baserri egondu nintzenen, taberna hasi berri berria ta pixka bat, hoi fabrika hasi baiño lehenagoko kontuak esan dizut orain esango dizutenak ta han Meaka baserrie zan, han mutil bat zegon morroi ta ni aldameneko baserrin, ni ere ezerrez, ez morroi ta ez neskame, ez, lana. Tabernetik etxea gindoazela biok alkarrekin arriada, oso traste txarra, lurra harrotzen ibiltzen dana katxarro zahar bat, ta ba al dakizu zer egin gendun harek eta nik: intxaur arbolen gora igo hue, pentsatu ze ittekook gaittuen. Ze

talentue, batez, batez, bueno, baiño...

- Gustora...

- Gustora, halaxe, bueno, komerik.

21. Familia guztiarekin Allora lanera

- **Erref:** BRS-009/027
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:40:06. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Allora lanera joan zen fabrikarekin. Han makina desberdinak zeuden, eta arazoak zeuzkaten. Calahorran egiten zuten lo, hotel dotorean. Baina berak pisua eskatu zuen, eta Lizarrara joan zen bizitzera 6 seme-alabekin.

22. Ingeniariekin tirabiran

- **Erref:** BRS-009/029
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:44:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Fabrika hartako ingeniarekin izandako tirabira kontatzen du.

23. Paper-fabrikako prozesua

- **Erref:** BRS-009/031
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:45:48. **Bukatu:** 00:48:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Paper-fabrikako prozesua kontatzen du. Emakumeek lan asko egiten zuten han.

24. Papera egiteko prozesua

- **Erref:** BRS-009/032
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:48:23. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Papera bera nola egiten zen azaltzen du.

25. Aurrerapenak fabrikan

- **Erref:** BRS-009/033
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:51:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Paper-fabrikan lanean hasi zenetik asko aldatu da: makinek abiadura handiagoa dute.

26. Lankide batek izandako istripua

- **Erref:** BRS-009/035
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:53:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

Laburpena:

Gizon bat behin makina barrura erori zen, eta bizirik atera zen. Makinak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

27. Lehengo lan-baldintzak

- **Erref:** BRS-009/036
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:53:22. **Bukatu:** 00:54:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lehen zer lan-baldintza zeuden aipatzen du.

28. Saldutako paper motak

- **Erref:** BRS-009/037
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:54:01. **Bukatu:** 00:54:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Papera kanpora saltzen zen. Zertarako balio zuten paper horiek azaltzen du. Edozein paper mota egiten zutela aipatzen du.

29. Beste paper-fabrika batzuk

- **Erref:** BRS-009/038
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:54:49. **Bukatu:** 00:55:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Beste paper-fabrika batzuk aipatzen ditu.

30. Mandatugile ibili zenekoa

- **Erref:** BRS-009/039
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:55:49. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mandatugile-lanetan ibili zenean zer egiten zuen kontatzen du.

31. Familiaren lurretan egin behar izandako lanak

- **Erref:** BRS-009/043
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:00:19. **Bukatu:** 01:01:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserríko lanak » Garia
- Baserría » Baserríko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Bere familiaren lurrei buruz hitz egiten du. Lehen zertarako erabiltzen ziren azaltzen du. Lan txar asko egin behar izaten zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com